


Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko produkzioa % 7,2 hazi zen 2022ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, uneko prezioetako hazkundera % 6 izan da

Eustatek landutako datuen arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreko jarduera, uneko prezioetan, aurreko urteko hiruhileko berekoa baino % 7,2 handiagoa izan da. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, uneko prezioetan % 6 egin du gora jarduerak, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhileko honetan, urte arteko igoera uneko prezioetan *Etxegintza* azpisektoreak izan du (% 5,5 igo da urte arteko terminoetan), eta, bereziki, *Obra Zibilak* (% 20,9 igo da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean).

2022ko lehen hiruhileko honetako sektorearen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, urtaroen eragina zuzendu ondoren eta uneko prezioetan, igoera % 6ra iritsi da. *Etxegintzak* hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan du, % 4,8koa, eta *Obra Zibilak* % 14 egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak (%). Uneko prezioak (p). 2022/I

	Egutegiaren eragina zuzenduta		Desestacionalizatua	
	2022 I/2021 I	At/At-1	2022 I/2021 IV	2021 IV/2021 III
Produkzioaren indizea	7,2	7,2	6,0	0,0
Eraikinak	5,5	5,5	4,8	0,7
Obra zibila	20,9	20,9	14,0	-4,3
Landunkopuruaren indizea	1,9	1,9	0,1	0,8

Oinarria 2015

(p)Behinbehineko datuak

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Data 2022ko Ekainaren 1a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

2022ko lehen hiruhilekoko landunen indizea, aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta % 0,1 igo ondoren, % 1,9 handiagoa izan da 2021eko lehen hiruhilekoko baino.

Informazio-oharrak

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

2022ko lehen hiruhilekoko EKIren estaldura **% 94,5ekoa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie eginiko ahaleginagatik inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62